


(http://ekonomiagardena.net/) (http://hernanikokronika.tumblr.com/)







Itxaso Perez jaietako egitarauaren portadarekin
(/m/albistea/argazkiak/None/barruan/14070Zitxasobarrukoa.jpg)

albistea//SANTIO JAIAK ITXASO PEREZ DISEINATZAILEA

# «Sagar gorriak Astigarragako sinbolorik garrantzitsuena irudikatzen du»

*Santio jaiak hasteko ez da ezer geratzen. Egitaraua laster banatuko da etxez etxe eta aurtengo portada, Itxaso Perez astigartarrak egina izango da. Herritarrek aukeratu dute.*

ASTIGARRAGA

| Gaur | Bihar | Etzi |
|---|---|---|
| max:20Cº | max:21Cº | max:22Cº |
| min:15Cº | min:17Cº | min:15Cº |

(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)
(http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5853x/eu/meteorologia/meteodat/zona_1.apl?e=8&z=2&dd=0&nombre=Hernani)Aemet (http://www.aemet.es) eskainitako datuak

ASTIGARRAGA


ASTIGARRAGAKO kronika

«Sagar gorriak Astigarragako sinbolorik garrantzitsuena irudikatzen du»

Sagardo dastaketa eta erromeria, etzi

(/m/aldizkaria/None/pdf/Uztailak%202%20astigarraga.pdf)

Uztailak 2

HERNANI

**2014/07/02 00:00 Asteazkena**

Udalak urtero, Santio jaietako egitarauaren azala edo portada aukeratzeko, diseinu desberdinak eskatu izan dizkie hainbat diseinatzaileri. Ondoren, Jai Batzordeak aukeratu izan du gustokoena. Iaz, ordea, herritarrei eman zitzaien aukera, eta aurten ere halaxe egin da. Sei proposamen jarri dira ikusgai kultur etxean eta seigarren aukerak lortu ditu boto gehien: 18 boto. Hain zuzen, Itxaso Perez diseinatzaile astigartarrarenak. Guztira 74 lagunek hartu dute parte.
Egindako diseinuaren inguruan, honakoa azaldu dio Kronikari Perezek: «Sagar gorriak Astigarragako sinbolorik garrantzitsuena irudikatzen du, eta hain zuzen, festa hauena: Santa Ana eguna. Nahiz eta gure festak Santioak izan, guretzat egun hau da gehien gozatzen duguna. Atzetik, berriz, festaren hasiera irudikatu dut: jendea difuminatua, konfettiak, globoak, laxoak… guztiak kolore askorekin».
Hasieratik, argi zuela zer egin gaineratu du: «Banekien zer nahi nuen benetan, baina sagarraren sinboloa ez nuen hain argi modu horretan sartzea, hain nabarmen. Beti gustatzen zait keinu bat egitea».

### Aurretik ere irabazitakoa

Diseinuaren mundua bere bizitza dela dio Perezek, horretan egiten du lan Arte Ederrak ikasi zuenetik (Leioa), eta gaur egun freelance moduan aritzen da. Ez da aurreneko aldia parte hartzen duela eta behin baino gehiagotan irabazi izan du lehiaketa hau: «Beti gustatu izan zait nere herriko jendearentzat edozein lan egitea eta asko pozten nau. Gainera, maitasun haundiarekin egiten dut», dio.
Epaimahaiak beharrean, herritarrek aukeratu izanak ilusio gehiago egiten ote duen galdetuta, halaxe dio: «Ilusio haundia egiten du zure lana aukeratzeak, bai astigartarrek aukeratu badute, bai epaimahai batek».

Atsegin dut 0 Tweet 2

**Izena***

**Eposta helbidea***

**Iruzkina***

Bidali Aurreikusi




(/m/aldizkaria/None/pdf /Uztailak%202_internet.pdf)

**Uztailak 2**

Gida komertziala (/gk/)

Tweets Follow

Urumeako Kronika @KronikaNet 42m
Josu Altuna, Usurbilgo txapelketako finalean #eskupelota #hernani dlvr.it/6Bfp7c

Urumeako Kronika @KronikaNet 6h
Langabetuak kontratatzeko diru laguntzak, enpresentzat #astigarraga #lanmundua dlvr.it/6BZnx3

Urumeako Kronika @KronikaNet 6h
Hernaniko Azeri-Dantzan, Hernaniko Txistulariak #jasotabazala #hernanikotxistulariak dlvr.it/6BZnqW
Expand

Urumeako Kronika @KronikaNet 6h
Herri Eskola, .eus domeinuaren aitzindaria #astigarraga #herrieskola dlvr.it/6BZnjZ

Urumeako Kronika @KronikaNet 7h

Tweet to @KronikaNet

## Azken argazkiak


San Joanak - ekainak ...


San Joanak - ekainak ...


XVI. Axeri Bila

## Azken bideoak







ARGITARATZAILEA

dobEra EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
Telefonoa: 943 33 08 99
E-maila: kronika@kronika.net

Santio zeharra 8, Kiroldegia - Astigarraga 20115
Telefonoa: 688 660 714
E-maila: astigarraga@kronika.net / urumea@kronika.net

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Hernaniko Udala · Astigarragako Udala · Ereñotzuko Auzo Udala · Aranoko udala · Goizuetako udala · DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK